

Urtarrilaren 20an
URTEAN ZEHARREKO 2. IGANDEA

Agurra

Jaunaren grazia eta bakea izan bitez zuekin.

Sarrerako oharpena

Urtean Zeharreko bigarren igandea dugu gaurkoa. Eguberri aldia burututa, bere bizitzako misterioak agertzen dizkigun Jaunaren urratsei jarraitzen diegu. Beharrezkoa dugu bere Hitza eta Eukaristiako Ogia, eguneroko lanean kemenez jarduteko.

Damu-otoitza

Senideok: aitor ditzagun gure bekatuak, misterio santuak ospatzeko gai izan gaitezen:

—Jesus Jauna, Itun Berriaren bitartekoa: Erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, Elizaren Senarra: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, Adam berria, kreazio berriaren lehen-semea: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara.

Otoitza

**Jainko ahalguztidun betierekoa,
zeure esku dituzu zero-lurrak;
entzun bihotz onez zeure herriaren eskariak
eta eman zeure bakea gure egunotan.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santurekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Zoriontsu ez dena, harrizko ontzi agor bat bezalakoa da. Jesu Kristogan bere poza aurkitzen duena berriz, ardo gozodun iturri ugaria bihurtzen da, guztien pozerako, norbere zorionerako eta Jainkoaren aintzarako.

Lehenengo irakurgaia (Is 62, 1-5)

Isaias profetaren liburutik

Sionen maitez ez naiz isilduko, Jerusalem maitez ez naiz geldi egongo; Haren zuzentasuna distira bezala argituko den arte, Haren salbamena zuzia bezala biztuko den arte. Ikusiko dute herriek zure zuzentasuna, erregeek zure ospea; izen berria ezarriko zaizu, Jaunaren ahoak emana. Koroa eder izango zara Jaunaren eskuan, errege burestun zure Jainkoaren eskuan. Ez dizute berriz deituko «Utzia», ezta zure lurraldeari ere «Hondamendia». «Nire atsegina» deituko dizute zuri, eta «Senarduna», zure lurraldeari. Atsegin izango bait du zuregan Jaunak, eta senarduna izango da zure lurraldea. Mutil gaztea neskatzarekin ezkontzen den bezala, zure eraikilea zurekin ezkonduko da; senarrak emaztearekin hartzen duen poza, zurekin hartuko du zure Jainkoak.

Erantzun-salmoa (Sal 95. 1-3. 7-8. 9-10ac)

Go - ra Jain - ko - a, e - gin kan - tu, bi - hotz hau - tsi -
ak biz - ten di - tu.



Kanta Jaunari kantu berri,
 kanta, lur osoa, Jaunari.
 Kanta Jaunari, bedeinka Haren izena, '
 iragarri egunez egun, Harengandiko salbamena.
 Zabaldu Haren ospea atzerrietan, '
 Haren mirariak herri guztietan. R/.

Herrietako sendiak, eman Jaunari,
 eman Jaunari ospe eta goraldi.
 Eman ospe Jaunari bere izenaren ederreuz,
 sar zaitezte Haren atarrietan opariak eramanez. R/.

Goretsazue Jauna jantzi gurenean,
 ikara zaitez, lurbira guztia, Haren aurrean.
 Esazue atzerrietan: «Jauna errege da,
 herriak zuzenbidez epaitzen ditu». R/.

Bigarren irakurgaia (1 Ko 12. 4-11)

San Paulo Apostoluak Korintotarrei

Senideok: Era askotakoak dira dohainak, baina bat-bera Espiritua; era askotakoak zerbitzuak, baina bat-bera Jauna; era askotakoak eginbideak, baina bat-bera guztiengan dena egiten duen Jaungoikoa. Bakoitzari guztien onerako ematen zaio Espirituaren agerpena.

Eta honela, jakintsuki hitzegitea ematen zaio bati Espirituaren bidez; besteri, Espiritu beraren arabera, hitz egokiz erakustea; besteri sinestea, Espiritu beraren egitez; besteri, Espiritu beraren egitez, gaixoak sendatzea; besteri, mirariak egitea; besteri, profeta

dohaina; besteri, espirituak bereiztea; besteri, hizkuntza ezkutueta mintzatzea; besteri, hizkuntza horien esanahia adieraztea.

Hori guztia, ordea, Espiritu batek-berak egiten du, Berak nahi duen bezala bakoitzari banatuz.

Aleluia (2 Ts 2, 14)



Jainkoak dei egin dizue gure berri onaren bidez,
Jesu Kristo gure Jaunaren aintza irits dezazuen. R/.

Ebanjelioa (Jn 2, 1-12)

Homiliarako argibideak

Igande batzuetan, san Pauloren irakaspentak entzungo ditugu, gure kristau elkarreentzat baliagarriak eta gaurkoak gertatzen direnak. Gaur "karisme" buruz mintzatu zaigu, hau da, bakoitzak Espirituarengandik jasotzen dituen dohainez, norberaren onerako ez baizik eta elkarrearen onerako diren dohainez.

Kristau elkartean ugariak dira guztien onerako zerbitzuak eta ministerioak: ardurarekin, gidaritzarekin eta adoretzarekin zerikusia dute batzuk, karitatearekin eta senitatearen zerbitzuarekin besteek, edota ekonomiaren zaintzarekin, ebanjelizatze eta katekesiarekin edota gaixoen zaintzarekin nahiz elkarteari hobeto ospatzen laguntzarekin. Espiritua gaur ere lanean

ari da karisma eta gaitasun berriak sustatzen, elkarreak bere nortasuna zaindu eta misioa hobeto bete dezan.

Denok dugu dohainak geure buruaren zerbitzura erabiltzeko tentaldia. Baina elkarrea zerbitzen jardun behar dugu ahaleginez. San Paulok esan digu partekatutako aberastasun eta ardurakidetza horrek erreferentzia bat izan behar duela, Hirutasun den Jainkoagandik datorren batasuna: bat bakarra Jauna (Kristo), bat bakarra Jainkoa (Aita), bat bakarra Espiritua.

Jainkoak Israeli eta Kristok elizari dion maitasuna eta guk maitasun horri eman behar diogun erantzuna adierazteko ezkon maitasunaren eta ezteien irudia erabili ohi da, ulertzen erraza da irudi hori. Jainkoa ez da maitatzeaz nekatzen. Kristo ez da maitatzeaz nekatzen. Gure leialtasun faltaren gainetik ere.

Lehenengo irakurgaiak Jainkoak Israeli dion maitasuna nolakoa den adierazi digu: bere emazte maitearengan poz beteak aurkitzen duen senarrarena bezalakoa. Horrek zentzua ematen dio gure bizitzari: Jainkoak senarrak emaztea maite duen moduan maite gaitu.

Ebanjelioan, berriz, berri horren sakontasuna eta poza ageri da: Kristok bere presentziaz bedeinkatzen du ezkontza, are gehiago, bera ageri da era sinbolikoan Senargai moduan, Jainkoak azken egunerako prestatu duen Ardo on moduan.

Pasarteak agertzen digu iritsi dela Jesusen ordua. Maitasunari, festari, herriko familia xume haien pozari Kristok emandako "baiezkoa" adierazten du. "Ardo ona" itxaroaldiaren bukaeraraino iritsi dela adierazten zaigu, iritsi dela Jainkoaren Bidaliaren ordua. Ardoa, maitasuna, festa: Kristo iragartzera eta martxan jartzera etorri den Erreinua, Erreinu baikorra eta pozgarria da.

Zeinen ongi, kristau bikoteek, bereziki maitasunaren eta ilusioaren "ardoa" amaitua dutela sumatzen dutenek, Jesus bere bizitzan presente sumatuko balute, ur hotza ardo gozo bihurtuz.

Andre Mariak eskatzen digu: «Egizue Berak esandakoa». Ur hotzak harreraren eta berotasunaren ardo bihur ditzagula nahi du Jesusek. Etorkizun itxaropentsu baten alde borrokan ari diren gizon eta emakumeen bideetan alaitasun eta bakerik falta ez dadin. Honela eskatu digu hasierako otoitzean: «eman zure bakea gure egunotan».

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok egiogun otoitz Jaunari, eta eska diezaiogun entzun ditzala errukiz gure otoitzak:

- Elizaren alde, bakean eta batasunean biziz, Jainkoaren ezaugarri izan dadin mundu zabalean. Eska diezaiogun Jaunari.
- Gure herriko eta herrialde guztietako agintarien alde, Jainko gure Jaunak argi ditzan haien pentsamenduak, egiazko bakeranzko erabakiak har ditzaten beti. Eska diezaiogun Jaunari.
- Bihotz-berritze bidean direnen alde eta bataioa hartzeko prestatzen direnen alde, Jainkoak bere errukiaren ateak zabal diezazkien eta Kristoren bizi berrian parte eman diezaien. Eska diezaiogun Jaunari.
- Hemen gurekin ez dauden etxeko eta adiskideen alde, Jainkoak entzun ditzan haien otoitzak ere eta bere asmoetan lagun diezaien. Eska diezaiogun Jaunari.

Jainko Jauna, gizadi osoari egiten diozu dei Kristoren Gurutzearekin bat egin dezan; entzun gure otoitzak eta egizu, Elizak goza dezala igandearen ospakizunak duen indar berritzailea eta Kristoren maitasuna gozatuz zeruko ezteiak alaitasunez itxaro ditzala. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze ondorengo otoitza

**Isur iezaguzu, Jauna, zeure maitasun-espirtua,
zeruko ogi bat beraz janaritu gaituzunok
zeure maitasunean bat egin gaitzazun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**